

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Hauteskunde zikloa eta nazio eremua

Hauteskunde zikloa abiaraztera doa, abiatu da dagoeneko. Berez, maiatzeko udal hauteskundeak genituen lehen hitzordua, baina Estatu espainoleko hauteskunde nagusiak aurreratu izanak hurrenkera aldatu du. Ipar Euskal Herrian, berriz, datorren urtean dira herriko etxeetako hauteskundeak, eta, jakina, faktore hori hiru probintzietako indar politiko zein hautetsi guztien buruetan da dagoeneko, batez ere lehiara aurkeztuko diren hautagaien buruetan. Auzapez batzuek errepikatuko dute eta beste zenbait ez direla aurkeztuko iragarri dute. Azken bost urteotan hautetsiok konpromiso handia azaldu dute Euskal Herrian izandako gertaera nagusiekin, hala nola, armagabetzearekin, presoaren eskubideen aldeko dinamikarekin edota, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeekin lotuta, instituzionalizazioarekin, besteak beste. Udalbatza berrietan konpromiso maila hori berretsi eta errepikatzeak hauteskunde prozesu honen helburuetako bat izan beharko luke, kateak etenik izan ez dezan.

Harrabots mediatikoa, nolanahi ere, Hego Euskal Herrian handitu da azken egunotan, eta, maila handi batean, agenda Estatu espainoleko giroak markatzen digu; ohi denez, gehiegitxo. Berritoki ere berezko agenda bat egituratzeko eta lantzeko arazo franko ditugu. Dependentsiaren patua.

Ezin dugu, horratik, ezikusiarena egin. Ultraeskuinaren eta espainolismo sutsuaren gorakadak eragina izango baitu gurean ere. Autonomien Estatua bera ere gehiegikeria bihurtu zaie. PPK transferentzien kontra Espainiako Senatura eramandako ekimena adibide bat baino ez da. Katalunia eta Euskal Herria kate motzean lotzeko gogo gero eta nabarmenagoa da.

Bere burua ezkertiarizat jotzen duen gobernu alderdiaren aldetik, Pedro Sanchezen alderdiaren aldetik alegia, ez da azkenean aurrerapauso handirik izan, ha-

sieran batean, zenbait gaitan, adierazpen itxaropentsuak egin bazituen ere. Baina eskuinak beste muturrera egin die tira eta, ezin dugu gure burua engaina, PSOEren DNA beti-betikoa da. Alfontso Guerraren eta Felipe Gonzalezen DNA, azken finean.

Zoritxarrez, ezkerrean ez da ausardiaz jokatzeko moduko indar eta mugimendurik atzematen. Gogoratzea besterik ez dago zer gertatu zen bandera zurien ekimenarekin. Elkarrizketaren aldekoa omen zen ekimena independentismoaren aldebakarreko bidea inoiz baino indartsuagoa zegoenean sortu zen, baina, aldiz, Estatu espainolak 155. artikuluekin erantzun zuenean, egun batetik bestera desagertu egin ziren oihak eta kamiseta zuriak. Felipe VI.a erregeak bere mezu gotorra egin ostean ez zuten elkarretaratze bat gehiago egin.

Ultraeskuinaren eta espainolismo sutsuaren gorakadak eragina izango du gurean ere. Autonomien Estatua bera ere gehiegikeria bihurtu zaie

2011n 15M mugimendua jarri zen martxan, eta 78ko erregimenaren giltzarrapoa puskatzeko ideia indartu zen, alternatiba politiko bat sortzeraino. Podemosek sekulako indarra hartu zuen hautetsontzietan, bereziki, ez da datu hutsala, Katalunian eta Euskal Herrian. Halere, Euskal Herrian 2011 hartan Bilduren fenomeno sortu zen, indartsu, ezker abertzalearen estrategia aldaketaren ondorio gisa. Gerora, errealitate sendoa dela erakutsi du, gorabeherekin bada ere. Ahal Dugu-Podemosek, ordea, gainbehera egin du, zenbait pasarte negargarri tarteko, Nafarroako krisia kasu.

Aipatutako guztitik atera daitekeen ikasgaia nahiko argia da: estatutik gabeko nazioak dira aldaketa demokratikoak eragiteko eremurik egokienak, baita eskuineko oldarraldiari aurre egiteko ere. •